

MOZIO ARRUNTA

ONKOLOGIKOAREN EGOERARI ETA HURA OSAKIDETZAN INTEGRATZEARI BURUZKOA

Reyes Carrere EH BILDU udal-taldeko bozeramaileak eta Aitzole Araneta Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikulua babesean, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten dute, Onkologikoaren egoerari eta hura Osakidetzan integratzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, Donostiako Onkologikoaren egoera okerrera doa egunez egun. Onkologikoko pazienteen elkartearen hitzetan, «*erabiltzaile izan direnak eta gaur egun erabiltzaile direnak zuzenean bizitzen ari dira Onkologikoko zentroak eta zerbitzuak izan dituen aldaketak*».

Nahiz eta gobernu- eta osasun-agintariek baieztatu Onkologikoaren jardueraren % 100 diru publikoarekin finantzatuta dagoela, eta Osakidetzarentzat zentro garrantzitsua eta Osakidetzaren Onkologia esparruan erreferentziazko erakunde bihurtzeko baliabide giltzarria dela esan arren, erabat baztertuta dagoen zentroa da, eta praktikan gutxiegi erabiltzen da.

Egia esan, kezka areagotzen ari da bai pazienteen artean, bai profesionalen artean, alde batetik, zentroa gutxiegi erabilia dagoela ikusten dutelako (2. solairua hutsik dago, 51 geletatik 6 edo 8 bakarrik erabiltzen dira, ia ez dago kirurgiarik, osasun-arloko profesionalak ez dute lanik, eta abar) eta, bestetik, iraganean proba, tratamendu eta jarraipen guztiak Onkologikoan bertan egiten baitziren –kirurgia barne–, eta orain, berriz, horiek guztiak leku desberdinetan egiten baitira. Horrek egoera nahiko ahulean uzten ditu pazienteak, eta toki batetik bestera mugitzera behartzen ditu.

Kezka horren seinale da gure hirian urriaren 15ean egin zen manifestazio jendetsua, pazienteen elkarteak eta enpresa-batzordeak antolatua.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus - www.donostia.ehbildu.eus -

Horregatik, EH Bilduk eta Elkarrekin Donostiak honako hau aurkezten dute:

MOZIO ARRUNTA

- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Onkologikoa onkologiako zentro monografiko gisa definitzeko, zerbitzuak helburu horretara egokituz eta, horretarako, Osasun Sailak, langileen ordezkariarekin lankidetzan jardunez; eta era horretan, beharrezko neurriak hartu eta paziente guztiek behar duten osasun-arreta jaso dezaten.
- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio berriro hel diezaiola Onkologikoa osorik Osakidetzan integratzeko ekimenari, Onkologikoko langileak ere kontuan hartuta, eta haiekin integrazio-plan bat eginda eta adostuta, egutegi baten esparruan.
- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio beharrezko neurriak har ditzala Onkologikoak lehen zuen jarduera berreskuratzeko eta areagotzeko.

Donostia, 2022ko azaroaren 4ean

Reyes Carrere Zabala,

Sin.: Aitzole Araneta

EH Bildu udal-taldeko bozeramailea Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramailea



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus— www.donostia.ehbildu.eus -